Nafarroako Gobernua Gobierno de Navarra
Hezkuntza Departamentua Departamento de Educación

GOI MAILAKO HEZIKETA
ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA
GIZA ZIENTZIETAKO BERARIAZKO ZATIA
2019ko DEIALDIA

31/2019 Ebazpena, otsailaren 1ekoa
(Otsailaren 19ko 92/2019 Ebazpenaren bidez aldatua)

PSIKOLOGIA

23-05-2019

KALIFIKAZIOA

DEITURAK: _____

IZENA: _____

NANa/ANTa: _____

Puntuak emateko irizpideak:

Ítem	Puntuazioa, gehienez
1	5
2	5
3	1
4	1
5	1
6	1
7	3
8	1
9	1
10	1
11	1
12	2,5
13	1
14	1
15	5
16	1
17	1
18	4
19	1
20	1
21	1
22	1
23	1
24	1
25	1
26	2
27	4,5
	50

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA GIZA ZIENTZIETAKO BERARIAZKO ZATIA
2019ko DEIALDIA

31/2019 Ebazpena, otsailaren 1ekoa
(Otsailaren 19ko 92/2019 Ebazpenaren bidez aldatua)

PSIKOLOGIA

1. Adierazi ondoko esaldiak gezurra ala egia diren

	E	G
Psikologia sasizientzia bat da (ez dio jarraitzen baliozko metodo zientifiko bati).		
Psikologia zientzia bat da, eta haren helburua da pertsonen edo animalien gogoa (burua) eta jokabidea aztertzea.		
Parapsikologiaren helburua da fenomeno eta jokabide hauek aztertzea: telepatia, premonizioak, lebitazioa...		
Psikologiak *metodo hipotetiko-deduktiboa* erabiltzen du, beste edozein zientziak bezala.		
Prozesu kognitiboei buruz ikertzea benetan konplexua da, eta kasu horietan psikologiak ezin dio jarraitu metodo zientifikoari.		
Psikologiak asko aurreratu du azken hamarkadetan, gizakiaren gaiak eta arazoak konpontzeari dagokionez, baina ezin da iritsi esperimentalki egiaztatu daitezkeen printzipio edo lege orokorretara.		
Psikoanalisia adibide ona da, erakusten duena psikologiaren izaera zientifikoa.		
Esan daiteke Wundt (1832-1920) dela psikologia zientifikoaren aita.		
Psikologia zenbait eskolatan banatu da: konduktismoa, psikologia kognitiboa eta humanismoa.		
Psikologia ikastea da nork bere burua ezagutzeko eta garapen pertsonaleko bide baten parekoa.		

2. Adierazi psikologiako zer adarri dagozkion psikologiaren aztergai edo aplikazio hauek:

Ikertzea prozesu psikologiko orokorrenak, gizakiaren jokabidearekin zerikusia dutenak	Psikologia oinarrizkoa eta esperimentala
Aztertzea gogoa (burua) eta giza jokabidea lanaren eremuan	.....
Psikologia aplikatzea sexualitateko arazoak konpontzeko	.....
Nahasmendu mentalen diagnostikoa eta tratamendua.	.....
Nola pentsatzen dugun, nola hautematen dugun gure ingurua, nola komunikatzen garen, nola oroitzen garen edo ikasten dugun	.....

Aztertzea zer aldaketa psikologiko dituzten gizakiek beren bizitzan zehar..... .....

Aztertzea giza ikaskuntza, bereziki hezkuntzako zentroen barruan ....

Aztertzea familiako harremanak, bikoteko arazoak, familiako kideen arteko komunikazio desegokia..... .....

Txostenak egitea delitu baten salaketa izan duen pertsona baten osasun mentalari buruz ....

Lotzea garuneko lesioak eta haiei atxikitako nahasmendu kognitibo eta emozionalak ....

Aztertzea antolaketa sozialak, jokabideen patroiak, rolak, etab. .. ..

3. 6 zenbakia duen atala da...



A. Talamoa
B. Hipotalamoa
C. Hipokanpoa
D. Zerebeloa

4. Zerebeloaren egitekoa da...

A. Hitz egitea, pentsatzea, oroitzea.
B. Muskulu mugimendu boluntarioak koordinatzea, eta posturari eta orekari eustea.
C. Bihotzeko eta biriketako funtzioak kontrolatzea.
D. Aldartea erregulatzen laguntzen duten substantzia kimikoak ekoiztea.

5. Neurotransmisoreen artean, dopamina zerekin dago lotuta?



A. Plazeraren sentsazioa, drogen adikzioa.
B. Aldartearen erregulazioa. Maila baxuek depresioa bultzatu dezakete.
C. Estresa arintzea, opiazeoek bezala.
D. Alertan egotea, tasa kardiakoa eta odolaren presioa handitzea.

6. Eta serotonina zerekin dago lotuta?

   A. Plazeraren sentsazioa, drogen adikzioa.
   B. Aldartearen erregulazioa. Maila baxuek depresioa bultzatu dezakete.
   C. Estresa arintzea, opiazeoek bezala.
   D. Alertan egotea, tasa kardiakoa eta odolaren presioa handitzea.

7. Droga da edozein substantzia, organismo bizidun batean sartutakoan nerbio sistema zentralean eragin dezakeena, eta kontsumitzailearengan menpekotasuna eta tolerantzia sortzen ahal dituena. Adierazi menpekotasun eta tolerantzia kontzeptuak.

   .....

   .....

   .....

   .....

   .....

8. Publizitate iragarki batean bikote gazte eta sentsual batek perfume bat aholkatzen duenean, hori zeren adibidea dugu:

   A. Publizitate subliminala; izan ere, publizitate mezua pertzepzio-atalasearen azpitik bidaltzen da eta produktua kontsumitzera bultzatzen du.
   B. Publizitate asoziatiboa; izan ere, ari da lotzen produktu bat ezaugarri jakin batzuk dituzten pertsonekin.
   C. Publizitate probokatiboa, produktuak erakarri egiten duelako.
   D. Publizitate dinamikoa, teknika psikodinamikoak erabiltzen ari delako.

9. Psikometria psikologiaren adarra da eta hauxe egiten du...

   A. Neurtu nortasunaren alderdiak, jarrerak, etab.
   B. Neurtu ezaupideak, iritziak, etab.
   C. Gaitasun mentalak neurtu, testak eta galdetegiak aplikatu.
   D. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

10. Daniel Goleman psikologoaren arabera, “Adimen akademikoak ez du ematen prestakuntza egokia bizitzan zehar aurrean ditugun zailtasun edo aukera ugarietarako”. Autore horren ustez, adimenik garrantzitsuena izanen litzateke...

    A. Adimen logiko-matematikoa
    B. Ahozko adimena edo hizkuntza adimena
    C. Adimen emozionala
    D. Adimen testek neurtzen duten adimena.

11. Vygotsky-ren arabera...

A. Pentsamendua eta hizkuntza senezkoak dira.
B. Lehenik hizkuntza agertzen da, eta gero pentsamendua. Hizkuntzak jardun mentalean eragiten du edo hori determinatu egiten du.
C. Hizkuntza pentsamenduaren mendekoa da. Lehenik, eboluzio garapen maila bat behar dugu.
D. Hizkuntza eta pentsamendua batera garatzen dira; biak lotuta daude, ez litzateke horietako bat existituko bestea existituko ez balitz.

12. Hauek dira hizkuntzarekin zerikusia duten kortexeko area nagusiak.....

	Zk.
Wernicke-ren area	
Broca-ren area.....	
Faszikulu arkeatua.....	
Ikusmen kortexa.....	
Bira angularra	3



13. **Bira angularra** larriki lesionatzen bazaio pertsona bati, hauxe sufrituko du...

A. Pentsatzeko ezintasuna
B. Irakurtzeko eta idazteko ezintasuna
C. Entzuten duena errepikatzeko ezintasuna
D. Entzuten duena ulertzeko ezintasuna

14. Emozioak dira ikasi gabeko “programak” eta horien helburua da ingurura egokitzea eta bizitza babestea. Gizakiak jokabide patroien arabera erantzuten du egoera desberdinetan. Garunean, sistema linbikoa da emozioen kokaleku gisa diharduen egitura. Garun emozionala ere deitzen zaio, eta honako osagai hauek ditu:

A. Talamoa
B. Talamoa eta hipotalamoa
C. Talamoa, hipotalamoa eta garuneko amigdala
D. Talamoa, hipotalamoa, garuneko amigdala eta zerebeloa.

15. Emozioek dute osagai kognitiboa (pentsamendu edo bizipen subjektiboa), osagai neurofisiologiko eta biokimikoa (erreakzio organikoa), eta portaeraren osagaia edo adierazpenekoa (hitzezko portaera eta ez-hitzezkoa). Sentimenduak dira gure asoziazio mentalak eta erreakzioak emozioen aurrean, bakoitzaren esperientziaren araberakoak. Adieraz ezazu ondokoak egia ala gezurra diren:

	E	G
Emozioak sortzetikoak dira funtsean, eta batez ere izaera fisikokoak		
Emozioak funtsean ez dira borondatezkoak eta kontrolagaitzak dira.		
Sentimenduek indar handiagoa dute.		
Sentimenduak hobeto kontrola daitezke.		
Emozioak arrazionalagoak dira, funtsean izaera kognitiboa dute.		
Emozioek iraupen txikiagoa dute, bizkorrago igarotzen dira.		
Sentimenduek emozioak sor ditzakete.		
Sentimenduaren adibidea: lagun batek azken unean esaten dizunean ezin dela zurekin atera.		
Sentimenduaren adibidea: gurasoek esaten dizutenean ez daukazula arratsaldea libre eta zerbait egiteko eskatzen dizutenean.		
Sentimenduaren adibidea: gure familiarekiko dugun maitasuna.		

16. Emozioak eta sentimenduak oso garbi bereizten dira, beren sekuentzia tenporalarengatik:



A. Emozioa sentimendua baino lehenagokoa da
B. Sentimendua emozioa baino lehenagokoa da.
C. Biak aldi berean sortzen dira.
D. Emozioa eta sentimendua sinonimoak dira.

17. “Gezur detektagailua”, “egiaren makina” edo poligrafoa...

A. Benetan neurtzen du pertsonen adierazpenak “egia” ala “gezurra” diren, giza garunaren barne adierazleetan oinarrituta. Psikologiaren ekarpenik handienetako bat da.
B. Aldaketa emozionalekin batera etortzen diren aldaketa fisiologikoak hautematen ditu; izan ere, hiztunak gezurra esaten duenean, antsietatea sortzen da, eta handitzen dira transpirazioa, arnas-maiztasuna, bihotz-maiztasuna... Horiek detektagailuekin erregistratu egiten dira.
C. Gailu oso fidagarria da, emozioak instintiboak direlako eta autokontrol eta prestakuntza handiak dituen pertsona batek ere ez lukeelako lortuko agertzen diren aldaketa horiek ezabatzea.
D. Balio handikoa da, are prozesu judizialetan ere, eta psikiatra eta psikologo gehienek diote baliozkoa dela.

18. Nortasunaren definizioa desberdina da korronte desberdinen arabera, baina horietan guztietan funtsezkoa da pertsona bakoitzak dituela jokabide, pentsamendu, emozio eta sentimenduen patroi bat, nahiko egonkor eta iraunkorrak, eta patroi horrek besteengandik bereizten gaituela. Adierazi psikologian erabiltzen diren, gutxienez ere, 4 prozedura nortasuna ezagutzeko eta baloratzeko:

.....

.....

.....

.....

.....

19. Ezaugarrien teoriek ezarri dute nortasuna osatzen dutela zenbait ezaugarri egonkorrek, eta horiek mugatzen, azaltzen eta, hein batean, erakusten dutela pertsona batek nola pentsatzen duen eta errealitatea nola interpretatzen duen. Esaterako, introbertsio/estrobertsioari dagokionez...



A. Introbertidoa izatea ez da batere ona. Estrobertidoa izateak abantaila asko ematen ditu.
B. Pertsona batzuk introbertidoak dira argi eta garbi; beste batzuk, estrobertidoak argi eta garbi. Ez dago tartekorik.
C. Hoberena da hein batean introbertidoagoa edo estrobertidoagoa izatea, segun eta zein den pertsona bakoitzarentzat egokiena testuinguru bakoitzean.
D. Pertsona introbertidoak dira arretatsuak, adeitsuak, orekatuak eta lasaiak. Pertsona estrobertidoak dira lagunkoiak, hiztunak eta animatuak. Pertsona bakoitza da den bezalakoa eta ezin da aldatu.

20. Psikologian badago eskuliburu bat maiz erabiltzen dena nahasmendu mota desberdinak deskribatu eta sailkatzeko; hura da...

A. DSM (Eritasun Mentalen Eskuliburu Diagnostiko eta Estatistikoa), American Psychiatric Association elkartearena.
B. MDEEM (Eritasun Mentalak Ebaluatzeko Eskuliburua), European psychologists Association elkartearena.
C. MBP (Psikologo onaren eskuliburua), Nafarroako Psikologoen Elkargo Ofizialarena.
D. MPM (Psikiatriako eskuliburua medikuendako), Medikuen Elkargo Ofizialekoa.

Anorexia nerbiosoa

Anorexian aldatu egiten da pisuaren edo gorputzaren formaren pertzepzioa; adinari eta altuerari dagozkion pisua baino baxuagoa izaten da; gainera, pisua irabazteko beldurra, etab. Eritasun larria da. 12 urteren inguruan hasten da, eta eraginik handiena dutenak 14 eta 25 urte bitartekoak izaten dira; %90 baino gehiago emakumeak izaten dira. Normalean, gaixoek ez dute beren borondatez laguntza eskatzen.

Anorexiaren diagnostiko klinikorako irizpideetako bat da pisu normaltzat hartzen denetik %15 beheragoko pisua izatea, edo baxuagoa. Paradoxikoki, pisu hori –anorexikoena dela uste dena– izaten dute modako modeloek eta edertasunaren prototipoek.

21. Egiaztatzeko pertsonak duela bere adinari eta altuerari dagozkion pisua baino baxuago bat, erabiltzen da...



A. Bere adinari dagokion pisua, kilogramotan.
B. Gorputz-masaren indizea
C. Altueraren eta pisuaren arteko zatiketa (altuera cm-tan/pisua kg-tan)
D. Pisuaren eta adinaren arteko zatiketa

22. Anorexia nerbiosoa hauxe da:

A. Nortasunaren nahasmendua
B. Elikadura portaeraren nahasmendua
C. Nahasmendu psikosoziala
D. Nahasmendu afektiboa

23. Hauxe da funtsean eritasun honen jatorria...

A. Biologikoa (joera genetikoa)
B. Psikologikoa (arazo afektiboak eta autoestimukoak, etab.)
C. Soziokulturala (edertasun-ideala, gizarteko presioa...)
D. Hainbat faktore daude

24. Posible da anorexia duen pertsona batek konfiantzazko lagun bati kontatzea zer ari zaion gertatzen. Halaber posible da guk susmatzea Interneteko beste “lagun” batzuekin egoten dela, eta haiekin argaltzeaz hitz egiten duela, etab. Nahiz eta seguruenik familiakoek ikusi dituzten jada alarma seinaleak, lagunek honako hau egin dezakete:

A. Harekin ulerkorrak izan, entzun eta konfiantza izan gaixoak eskatuko duela profesionalen laguntza.
B. Sekretua gorde eta harekin, ahal dela, ez haserretzea, horrek ez lukeelako ezertarako balioko.
C. Gaixoa animatzea –maiz errepikatuz– laguntza profesionala eska dezan, irakasleak informatzea edo familiarekin harremanetan jartzea.
D. Saiatzea elikadura jokabidea alda dezan.

25. Psikologia sozialak aztertzen du...

A. Gizartearen jokabidea.
B. Jokabidearen nahasmenduak gizartean.
C. Gizartearen antolaketa gizarte klaseetan.
D. Pertsonak taldeen barruan duen jokabidea.

26. Maiz, taldean gaudenean izaten ditugu zenbait jokabide, bakarrik egonez gero izanen ez genituzkeenak. Hori batez ere ikusten da indarkeriazko jokabideak edo jokabide desegokiak dituzten taldeetan. Adibide garbiak dira mozkortzeko turismoa, futbol partidetako indarkeria eta, hein txikiago batean, freskagarri lata bat botatzea espaloian. Zergatik gertatzen da hori?

.....

.....

.....

.....

.....

27. Irakurri ondorengo testua, erreparatu datuei, egin emaitzen balorazioa, adierazi zer faktore ariko diren emaitzan eragiten, eta azaldu psikologiako profesionalek zer jarraibide izan beharko lituzketen emaitza horiek hobetzeko.

Psikologiaren zientifikotasuna

Zientzia eta Teknologiarako Espainiako Fundazioak egiten ditu Zientziaren pertzepzio sozialari buruzko azterlanak. 2014ko txostenean, galdetegi batekin lortutako emaitzak erakusten dira; 6.355 elkarrizketa egin ziren, Espainian bost urtez edo denbora luzeagoan bizi diren pertsonen artean; elkarrizketatuak 15 urtekoak edo zaharragoak ziren. Hauxe da zenbait diziplinari emandako batez besteko zientifikotasun maila, 1etik 5era bitarteko eskala batean (1ek esan nahi du “Ez da batere zientifikoa”, eta 5ek “Oso zientifikoa da”):

	Gizonak	Emakumeak	Batez bestekoa	4 edo 5 eman dutenen ehunekoa
Medikuntza	4,68	4,68	4,68	%94,2
Fisika	4,50	4,51	4,51	%87,5
Biologia	4,43	4,45	4,44	%86,1
Matematika	4,22	4,25	4,24	%79,4
Astronomia	4,00	4,03	4,02	%68,6
Psikologia	3,58	3,69	3,63	%54,7
Homeopatia	2,80	2,91	2,86	%27,4
Akupuntura	2,68	2,77	2,72	%25,2
Historia	2,69	2,71	2,70	%25,2
Ekonomia	2,63	2,68	2,66	%23,2
Horoskopoak	1,46	1,65	1,56	%5,0

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

31/2019 Ebazpena, otsailaren 1ekoa
(Otsailaren 19ko 92/2019 Ebazpenaren bidez aldatua)

PSIKOLOGIA